

# Heptameron

El libro de una reina de Navarra

## Heptameron

Zazpi egun itxialdian

Margarita Nafarroakoa



# Egitasmoa

---

- Margarita Nafarroakoak 1559an idatzi zuen Heptamerona. Frantsesez idatzi zuen, eta gaur arte ez da inoiz euskarara itzuli.
- Liburua klasiko bat da, Nafarroakoa, eta gizarte osoarentzat berreskuratu nahi dugu, baita nahi duten irakurle guztien eskuetara helarazi ere.
- Guztira 72 ipuin edo istoriok osatzen dute liburua, eta zortzi 'egunetan' antolatuta daude.
- Liburuan itxialdi batean kontaturiko narrazioak biltzen dira, eta 2020ko itxialdian sortu zen euskarara ekartzeko egitasmoa.
- Hainbat ipuinen ikuspuntu aurrerakoiak ere –besteak beste, genero-ikuspegitik– gaur egungo irakurleentzako erakargarri bihurtzen du Nafarroako erreginaren liburua.
- Egileak eta liburuak Nafarroarako duten garrantzia ageriko da: Nafarroako Gobernuak erreginaren biografia bat argitaratu zuen 2011n, [Margarita de Angulema. Una princesa del Renacimiento](#), eta umeendako bertsioa era apailatu zuen ( gaztelaniaz eta euskaraz): [Margarita Angulemakoa, Nafarroako erreginaren bizitza](#)
- Gure proiektua liburu osoa itzultzea da, urtero egun bateko ipuinak euskarara ekarriz. Lehenengo eguna dagoeneko itzuli dugu, baita azala prestatu ere.
- Urtero itzultitako eguna jendaurrean irakurriko da, eta saiatuko gar aahalik eta lagun eta erakunde gehienek parte har dezaten irakurrialdian. Iruñean gauzatu nahi dugu lehen irakurketa-saioa.
- Liburua formatu digitalean argitaratuko da Booktegin.eus-en. Ez dugu baztertzen paperezko formatuan ere plazaratzea. Ahal dela, horixe ere nahi genuke.
- Egitasmoa finantziatzeko –itzulpen-lana, batez ere–, erakundeen laguntza bilatuko dugu. Crowdfunding bat antolatzea beste aukera bat izan liteke.



Heptamerona

El libro de una reina de Navarra



## Idazlea

---

Margarita Angulemakoa Nafarroako Henrike II.a Albretekoaren emaztea izan zen. Anguleman jaio zen, 1492ko apirilaren 11n. Lau urte zituela aita galdu zuen (Karlos VIII.a). Joana III.a Albretekoaren ama izan zen.

Amak hezi zuen (Luisa Savoiakoak) eta hezkuntza aberatsa eman zion, batez ere linguistikoa, gaztelania, italiara, latina, grekoa eta hebreera irakatsi baitzizkion; 1527an Nafarroako errege Henrike II. arekin ezkondu zen eta erreginak Kalbino eta beste intelektual batzuk babestu zituen Nafarroako gortean (1534).

Idazle errenazentista hau "Errenazimentuaren Medicitzat" hartu ohi da Europa osoan, Frantzian bereziki, haren tolerantziagatik, kultura-prestakuntzagatik eta garaiko mugimendu zientifiko, poetiko, filosofiko eta erlijiosoei laguntzeagatik.

# Liburua

Alde batetik ironiaz eta bestetik kultura handiz azaldurik daude gai denak. Hasieran batean, 1558an, 67 eleberrri besterik ez ziren eta, ustez, anonimoa zen testua, baina, urtebete pasatu ondoren, Margarita Nafarroakoak berak sinaturiko liburu gisa kaleratu zen. Hizkuntza literario modernoaren hastapenetan ondutako testu horren gaia maitasuna da: erromantzeak, desleialtasunak, engainuak edo isekak, lizunkeria, eta apaiz eta fraideen lizuntasunari egindako kritika gogorrek agertzen dira. Ez da ahaztu behar liburua kaleratu eta urteak pasatu ondoren Shakespearek berak “Navarre shall be the wonder of the world” esaera ospetsua idatzi zuela, Margarita erreginaren gorte errenazentista hura gogoan. Gurera ekarrita, beraz, ezinbesteko altxorra dugu euskara literarioa osatzen laguntzeko.

*Heptamerona* idazten ari zen garaian, adibidez, Shakespearek berak gaur egungo ingelesa modernoaren sustraiak ezarri zituen. Berak eta beste batzuek, jakina, Thomas Watson edo Christopher Marlowe kasu.

Era berean, garai hartakoa da Kixotea ere. Cervantesek zaldunen literaturaz karikatura egiteaz gain, Berpizkundeko idazkera bera ere trufagai hartu zuen. Hark ez zuen uste Kixotea eleberria zenik dibertimendu komikoa baizik. Horregatik, nahita, gaizki idatzi zuen, Errenazimendu eta Barrokoaren artean aldatze bidean zegoen idazkeraz txantxa eginez... eta hor egon zen haren ekarpena, funtsean. Margarita Nafarroakoak berak sinaturiko liburuan antzera gertatzen da: hizkera erregistroak nahasten dira eta umorea nahiz orduko gizarteari eginiko kritika azaltzen da lehen aldian.

Bestetik, Margarita Nafarroakoak idatzitako errelato bildumak literatura modernoaren oinarria ezarri zuen, bai hizkera berezitan eta bai gaietan, eta hurrengo literatura kultuaren ardatzak jarri zituen garai modernoaren hastapenetan (Errenazimentuan eta giro erasmista batean).

## 5. istorioa

*Nyorteko bi kordelierrek, Coulloneko kaian ibaia igarotzen ari zirela, igarotzen zituen batelaria bortxatu nahi izan zuten. Hark, ordea, zuhurra eta prestua baitzen, hain ongi lo arazi zituen hitzez, non, eskatzen zutena emanen ziela adosturik, justiziaren esku jarri baitzituen, eta zaindariarengana bidali, merezi zuten zigorra har zezaten.*

Bazen behin Coulongo portuan, Niortetik gertu, batelari bat, jendea ibaiaz bertze aldera eraman bertzerik egiten ez zuena gau eta egun.

Egun batean, Niort horretako bi kordelierrek ibaia gurutzatu zuten, biek bakarrik batelariarekin. Eta, pasagunea Frantziako luzeenetakoa denez, asperdura pasarazteko, batelaria enamoratu nahian hasi ziren biak, baina batelariak behar bezala erantzun zien. Halere, haiek, bideak nekatuta ez zeudenez eta ez ur hotzak izozturik ere, eta ezta emakumearen arbuioagatik lotsatuta ere, indarrez hartzea erabaki zuten, edo, bestela, batelariak uko eginez gero, ibaira botako zutela deliberatu zuten. Neskak, berriz, haiek faltuak eta maltzurak bezain zuhurra eta prestua baitzen, erran zien:



–Ez naiz iduri dudan bezain zakarra, baina bi gauza eskatu eginen dizkizuet, arren, eta gero ikusi eginen duzue emateko prestago nagoela ni zuek eskatzeko baino.

Bi kordelierrek San Frantziskorengatik zin egin zioten eskatzen zioten guztia emanen ziotela nahi zutena lortzeko.

–Eskatzen dizuet –erran zien hark– zin egin dagidazueta inori ez diozuela inoiz gure abentura hau aipatu eginen.

Haiek pozik agindu zioten hori. Eta gero berak erran zien:

–Plazera banan-banan hartu eginen duzue nigandik, zeren lotsatu eginen bainintzateke biek batera ikusi eginen baninduzue. Erabaki, bada, bietatik zeinek izan nahi duen lehena.

Haiek ikusi zuten eskatutakoa oso bidezkoa zela eta gazteenak onartu zuen zaharrena izanen zela lehenengoa. Horrela, uharte txiki batera hurbildurik, batelariak gazteenari erran zion:

–Abade txit ona, gera zaitez hemen otoitz egiten, zure laguna bertze uharte batera eramaten dudan bitartean, eta itzultzen denean, goraiatzan baldin banau, hemen geratu eginen da eta biok elkarrekin joanen gara. Gazteak uhartera jauzi egin zuen, zaharra, batelariak bertze uharte batera eramane zuena, noiz itzuli eginen. Baina, hara iristean, bere ontzia zuhaitz bati lotu izanen balu bezala, hau erran zion fraideari:

–Lagun, zoaz eta ikusi lehenago ea non kokatzen garen. Abadea uhartera joan zen, leku egoki baten bila, baina batelaria, hura lehorrean ikusi bezain laster, zuhaitzari ostiko bat emanik, ibaian barrura urrunduz txalupan, eta bi fraide onak bi uharte ezberdin haietan utzi zituen, ahal zuen garrasi handiena egiten zien bitartean:

Itxaron, jaunak, Jainkoaren aingeruak kontsolatzeko daukazue niregandik behintzat inolako kontsolamendurik lortuko ez baituzue eta!

Abadeak belauniko jarri ziren urertzearen ondoan, lotsarik ez emateko erregutuz, eta batelaria portura eramango zituela esaten bazuen ere ez zuen halakorik egiten baizik eta gero eta gehiago urruntzen zela bere kolporako mintzatzen:

– Zoroa nintzateke, zuen eskuetatik ihes egin ondoren berriro amarru berean eroriko banintz...

Eta hirira sartu zenean, senarra eta magistratuak ikustera joan zen, Jainkoaren graziagatik bi otso arriskugarri atzaparretatik ihes egin zuela eta haiek harrapatzeko esan zien. Denak joan ziren haien bila, inor, ez txikia ez handia, harrapatu nahi ez zituenik geratu gabe.

Fraide gizagaixoak, hain segizio handia iristen ikusita, bakoitza bere uhartean ezkutatu zen, Adanek Jainkoaren aurrean biluzik ikusi zuenean bezala. Lotsaz beterik zeuden egindako bekatuagatik eta zigortuak izateko beldurragatik, erdi hilik baleude moduan dardarka zeuden. Hala ere, preso hartu zituzten, eta gizonek eta emakumeek haiekin barre egin eta zirikatzen zuten. Batzuk harrituta zeuden:

– Abade on hauek kastitatea iragartzen digute eta gero gure emakumeei kentzen diete.

Beste batzuek zioten:

– Kanpotik zuritutako hilobiak dira, baina barrutik ustelduta daude.

Eta beste ahots batek garrasi egin zuen:

– Fruituengatik jakingo duzue zein zuhaitz mota diren.

Fariseuen aurkako idatzitako pasarte guztiak bi atxilo gizagaixoen aurka erabiliak izan ziren baina epaileak, bere nagusiaren eskaeraz, lagundu eta askatu egin zituen, elizakoei sekularrei baino zigor gogorragoak ezarriko zizkietela ziurtatuz, eta, denak asebetetzeko, fraideek esaten zuten mezak eta otoitzak egingo zituztela. Epaileak, beraz, nagusiaren eskaera onartu zuen eta atxilo eman zituen komentuko satora non preso hartu zituenak, gizon zuzena baitzen, ibaia gehiago ez gurutzatzeko aitarena egin gabe eta Jainkoaren izena aipatu gabe agindu zien.

**Heptameron**

El libro de una reina de Navarra

# Heptameron

Zazpi egun itxialdian

Margarita Nafarroakoa

